

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Ekintzaileei laguntzeko beken udal programako esleipendunei laguntzen bigarren zatia (ehuneko 50a) ordaintzea onestea. 2020ko deialdiko bigarren fasea

I. Tokiko Gobernu Batzarraren 2019ko abenduaren 9ko erabakiz onetsi ziren Gasteizko Udalaren dirulaguntzetarako deialdiak arautzeko oinarri orokorrak 2020. urterako, eta horien 2. atalean zehazten dira aurreikusitako eremuak eta dirulaguntzen ildoak, besteak beste, Enpresen Zerbitzuaren 25. ildoak, "Ekintzaileentzako beka" izenekoak (2019ko abenduaren 23ko ALHAO, 147. zk.).

II. Aurreikusitako helburuak eta ekintzak garatzeko, eta aipatutako deialdiaren oinarri orokorretan ezarritakoari lotuz, Tokiko Gobernu Batzarrak ekintzaileentzako beken udal programaren oinarriak eta deialdi publikoa onetsi zituen 2020ko martxoaren 6ko erabakiz (2020ko apirilaren 1eko ALHAO, 38. zk.), 83.700,00 euroko zuzkidurarekin, 2020ko ekitaldirako onartutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidaren kontura.

III. 2020ko irailaren 30ean deialdiaren bigarren faserako eskabideak aurkezteko ezarritako epea bukatu zelarik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak 2020ko abenduaren 10ean ebatzi zuen aipatutako deialdia, beken bigarren ehuneko 50a ordaintzeko baldintzatzat jarrita egindako jarduerak eta lortutako emaitzak zehazten dituen oroitidazkia aurkeztea, deialdiaren 4. oinarrian xedatutakoaren ildotik.

IV. 2021eko urtarrilaren 20ko datuz, enpresa-proiektuen tutoretzaren eta jarraipenaren arduradunak txostena egin zuen, burututakoaren oroitidazki teknikoa aurkeztu duten onuradunei bekaren bigarren ehuneko 50a ordaintzearen alde.

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari dagokio eskabideak ebatzea.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, bekadunen proiektuak jarraitzeko izendatutako tutoreak egindako proposamena ikusirik, eta eskumenak eskuordetzeko 2019ko ekainaren 21eko erabakia dela medio, Ekonomia-sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak hau,

Ebatzi du

Lehena. Deialdiaren 4. oinarrian ezarritako betekizunak betetzen dituztela egiaztatu ondoren, 2020ko abenduaren 10eko ebazpenaren bidez ekintzaileei laguntzeko emandako beken bigarren ehuneko berrogeita hamarra (ehuneko 50) pertsona hauei ordain dakien onestea:

| | NAN | BEKAREN BIGARREN ORDAINKETA (EUROAK) |
|----|--------------|---|
| 1 | 72833494S | 1.116,67 € |
| 2 | 72721258L | 909,15 € |
| 3 | 18593203A | 909,15 € |
| 4 | 03138917S | 879,50 € |
| 5 | 72845462T | 879,50 € |
| 6 | 46234350A | 849,85 € |
| 7 | 72729556Z | 849,85 € |
| 8 | 72740907A | 790,56 € |
| 9 | 44670490M | 790,56 € |
| 10 | Y3961387L | 790,56 € |
| 11 | 72720682H | 760,91 € |
| 12 | 18591737D | 731,27 € |
| 13 | 72738153D | 731,27 € |
| 14 | 18592091H | 731,27 € |
| 15 | 72830493G | 701,62 € |
| 16 | 72826060X | 701,62 € |
| 17 | 45770085Q | 671,98 € |
| 18 | 72740878C | 671,98 € |
| 19 | 72850238S | 642,33 € |
| 20 | 72718500K | 642,33 € |
| 21 | X6132515W | 642,33 € |
| 22 | 72740130P | 612,68 € |
| 23 | 72740129F | 612,68 € |
| 24 | 16288534A | 583,04 € |
| 25 | 72834355W | 583,04 € |
| 26 | 72827613E | 583,04 € |
| 27 | 44128851Q | 583,04 € |
| 28 | 72746745E | 553,39 € |
| 29 | 18592132J | 523,75 € |
| 30 | 29098202M | 494,10 € |
| 31 | Y6847500T | 494,10 € |
| 32 | X9658213F | 494,10 € |
| 33 | 72846786J | 494,10 € |
| 34 | Y5951507H | 494,10 € |
| 35 | 72833992F | 494,10 € |
| 36 | 18040408J | 494,10 € |
| 37 | X5587274E | 494,10 € |
| 38 | 44676358P | 494,10 € |
| 39 | 72846905V | 494,10 € |
| | TOTAL | 25.969,92 € |

Bigarrena. Ordainketa horien zenbatekoa (25.969,92 euro) 2020rako onetsitako udal aurrekontuko 0821.4331.489.49 partidan deialdirako zorpekinaren kontura jasota uztea (zazpigarren oinarria).

Hirugarrena. Ebazpen honen bitartez ematen den laguntza ekonomikoa “Enpresa Lokala 10. Inbertitu etorkizunean” proiektu europarraren barruan sartzen da, eta Europako Gizarte Funtsaren ehuneko 50eko finantzaketa jaso du, Euskadi 2014-2020 programa operatiboaren bitartez.

Laugarrena. Beken onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, horiek ezereztu ahalko dira, eta laguntza osoa edo zati bat ordainduta badago, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko da.

Bosgarrena. Ebazpena onuradunei jakinaraztea. Orobat jakinaraztea ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortzen baitu, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahalko dela zuzenean Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; bestela, aukeran, berraztertze errekurtsioa aurkeztu ahalko da, ebazpena eman duen organo berari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazte egunaren biharamunetik; horren berariazko nahiz ustezko ebazpenaren kontra, berriz, bi hilabeteko epean aurkeztu ahal izango da administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, errekurtsioa ezesten duen ebazpena jakinarazten den egunaren biharamunetik, edo, ebazpena ustezkoa bada, sei hilabeteko epean, ustezko ebazpen hori gertatzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2021eko urtarrilaren 21ean

Administrazio Zerbitzuko burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI